

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Proiektu bat aurrera ateratzeko ezinbestekoak dira bazkideak eta hornitzaileak izatea, are gehiago, hauek gabe asko kostatuko litzaiguke gure proiektua aurrera ateratzea. Hori dela eta, proiektua hasi aurretik zenbait hornitzaileekin kontaktatu dugu materialak eskuratzeko, lehenik eta behin Kongon bertan materialak eskuratzeko bertako enpresa batekin kontaktatu genuen gure fabrika eta produktuak egiteko.

Beste funtsezko elkarte bat, DHL empresarekin kontaktatu genuen gure materialak eta produktuak mugitzeko, herrialde batetik bestera eta Kongon bertan mugitzeko ere. Behin produktua Espainiara iristerakoan produktua alde batetik bestera garraiatzeko zenbait enpresekin jardungo dugu, hala nola, DHL, AMAZON edo SEUR.

Bezeroak indibidualak izango dira, produktua gure denda fisikoan salduko dugulako edo bezeroen etxean entregatuko dugulako.

